

	<b>KALITATE-POLITIKA</b>	Berrikuste Zk.: 13 Data: 2013/10/23 22ko 4. orrialdea
---	--------------------------	---

## 1.2 KALITATE-POLITIKA

**GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO PARKEAren** helburua da eraikin eta azpiegiturak sortzea enpresak bertan kokatzeko goi-mailako lan zientifiko eta teknikoak egin dezaten. Era berean, gure helburua ere bada teknologiaren transferentzia bultzatea unibertsitatea, enpresa eta teknologi-zentroen artean. Horrek guztiak ekarriko du teknologia berriak garatzea eta enpresa berritzaileak erakartzea.

Gauzak horrela, Parkearen kalitate-politika bere bezero eta erabiltzaileen zerbitzurako espektatibak betetzean datza. Horretarako, dagoeneko gure lanaren oinarri diren bi ardatz ditugu: batetik, kalitatezko kudeaketa-sistema (ISO 9001:2008); eta bestetik, Etengabeko Hobekuntza eguneroko lanean.

Kalitatezko kudeaketa-sisteman lan egiteak berarekin dakar lan egiteko prozedura ezagunak eta eraginkorrak egotea, eta langile guztiak bere egitea.

Honela bada, gure xedea betetzeko langileen etengabeko prestakuntza eta enpresaren helburuak lortzeko inplikazioa ezinbestekoak dira.

Era berean, kalitatezko kudeaketa-sistemaren aktibitate guztiak Etengabeko Hobekuntzaren arabera egin behar dira: planifikatu, egin, ebaluatu eta jokatu ateratako ondorioen arabera.

Kalitatezko sistemak sozietatearen langileen konpromisoa eskatzen du ezinbestean bere helburuak beteko baditu. Halaber, nahitaezkoa da komunikazio-bide egokiak izatea gure bezero eta erabiltzaileen beharrak asetze aldera.

Aipatutako baldintza hauetaz gain, araudia eta legislazioa betetzearen garrantziaz jakitun izan behar dugu. Bai eta Parkearen ingurumena errespetatu eta lan-segurtasunaren araudia bete ere.

Gauzak horrela, azpimarratu nahi dugu sozietatearen konpromisoa –betiere, etengabeko hobekuntzaren bidez- **GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO PARKEAK KALITATE OSOAREN** bidean aurrera egin dezan.

Donostian, 2013ko Urriaren 23an

  
 Zuzendariordetza

	<b>LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO POLITIKA</b>	Data: 2013/03/01 1eko 1. orrialdea
---	---	---

## **LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO POLITIKA OROKORRA**

**GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA** Euskal Erakunde Publikoek bultzatu eta kudeatutako azpiegitura bereiztua da. Bere helburua nagusia da era iraunkorrean Gipuzkoako berrikuntza eta garapen teknologikoa laguntzea. Horretarako, batetik, unibertsitate, agente teknologiko eta enpresen arteko teknologiaren transferentzia ahalbidetzen du; bestetik, enpresa berritzaileak sortzea eta garatzea laguntzen du, eta, azkenik, kalitatezko instalazio eta espazioak, eta balio erantsiko zerbitzuak eskaintzen ditu.

### **GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA, S.A.:**

- 1) Aipatutako helburu estrategiko eta soziala betetze aldera
- 2) Kalitate-sistemen ezartze eta garatze aldera
- 3) Langileen alde eta beren erabateko asebetzea bilatze aldera
- 4) Kalitate osoaren alde Parkeko kudeaketan eta instalazioaren mantetze-lanetan.

### ***Honako konpromiso hau hartzen du:***

Sozietatearen organoek, Presidenteak eta Zuzendaritza-batzoreak beren gain hartzen dute **GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEko** lantokietan LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO kultura zabaltzeko konpromisoa. Horretarako, erakundearen atal guztiek parte hartzea beharrezkoa da.

**GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEko** Zuzendaritzak eta agintari-taldeek eraldaketa horren buru izan behar dute, eta dagoeneko beste helburu batzuk lortzeko izan dugun kontzientziario eta lortze-maila berberak erakutsi beharko dituzte.

Horretarako guztietarako egin du **GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEAK** bere LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PLANA. Planaren helburua da langileen lan-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetzea, eta horren ondorioz, emaitzak hobetzea.

Planaren ezagutzea, garatzea, indarrean jartzea eta hobetzea denon ardura da, betiere etengabeko hobekuntzaren politikaren baitan.

Presidentea naizen aldetik neure gain hartzen dut LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO plana dinamizatzeko konpromisoa, eta denoi gauza bera egiteko eskatzen dizuet **GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEaren** proiektua sendotzeko.

Donostian, 2013ko Martxoaren 1ean



Sinatuta: José Miguel Corres Abasolo  
 Presidente Exekutiboa

## **INGURUMEN-POLITIKA**

Euskal erakunde publikoek sustatutako sozietatea da **GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA**, azpiegitura fisiko bereiziki izaki. Gipuzkoako garapen teknologikorako eta berrikuntzarako ekarpenak egitea du xede, modu erabakigarri eta iraunkorrean; betiere, enpresen, eragile teknologikoen eta unibertsitateen arteko ezagutza-trukearen eta teknologia eskualdatzearen mesede. Horretarako, enpresa berritzaileen sorrera eta hazkundera sustatu ez ezik, kalitate handiko gune eta instalazioak nahiz balio erantsiko zerbitzuak ere eskaintzen ditu.

**GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA, S.A.**-ren helburuetako bat ingurumena kudeatzea da. Hala, erakunde hori osatzen dugun pertsona orok konpromisoa hartzen dugu ondoko printzipio orokorrak jarraitzeko, ingurumena kudeatzeko dugun sistemaren eraginkortasuna etengabe hobetze aldera:

### ***Konpromiso-adierazpena:***

- ✓ Ingurumena errespetatzea; erakundeekin loturiko ingurumen-alderdiei dagokienez, etengabeko hobekuntzarekiko eta kutsadura saihestearrekiko konpromisoaren bidez.
- ✓ Jardueraren ondoriozko ingurumen-eraginak ebaluatzea; horiek saihestu, ezabatu edo kentzeko asmoarekin.
- ✓ Baliabide naturalen arrazoizko kudeaketa sustatzea etengabe.
- ✓ Sozietatearekiko konpromisoa, ondokoak betez: batetik, aplikagarri diren lege-baldintzak, eta, bestetik, ingurumen-alderdiekin zerikusia duten eta guk harpidetutako bestelako baldintzak.
- ✓ Era berean, adierazpen honetan ezarritako konpromisoak jendaurrean ikusgai egongo dira, interesa duen edozein alderdiak hala behar duenean.

**GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA, S.A.**-ren zuzendaritzak bere egin ditu politika honen konpromisoak, eta horien buru da. Horrez gain, politika aldian behin berrikusteko konpromisoa hartzen du, planifikatutako helburuen lorpena errazteko baliabideak emate aldera.

Zuzendariorde Nagusiak sinatua



Donostia- San Sebastián, 2013ko abenduan.

